

Manuel Larramendi, erraldoi hura

Gaur 250 dira betetzen dira 'El imposible vencido' eta hiztegi hirueledunaren egilea hil zela

Hil zenean, Loiolan zeukan gela karez eta harriz ixteko agindu zuen jesuiten probintzialak. Haren paperen beldur ziren

FELEX IBARGUTXI

SAN SEBASTIÁN. Gaur 250 urte betetzen dira Manuel Larramendi hil zela, euskararen defendatzaile handienetako bat, lehenengo euskal gramatika idatzitakoa: 'El imposible vencido, Arte de la Lengua Bascongada (1729)'. Makina bat kale, plaza eta eraikinak daramate haren izena, arrasto sakona utzi zuen seinala.

Ez da aparteko ospakizunik egin. Euskaltzaindiak jardunaldi mamiak egin zuen 1990ean, jaiozaren 300 urteak bete zirenean, eta orain ez du beharrezkotzat jo. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna saiatu da ekitaldiaren bat antolatzen, baina atzera egin du, diru aldetik gaizki dagoelako.

Nolako heriotza izan zuen Larramendi? Hau idatzi zuen Patxi Altuna euskaltzainak -hura ere jesuita, Larramendi bezala-: «Uste dugu inguruan izango zituela azken egunetan etxeko lagunak, anaia laguntzailerak batez ere, oso maite baitzuten, Loiolako artxiboko gutunek erakusten diguten hezala. Badakigu aita Juan Bautista Mendizabal, etxeko erretorea, eta aita Kardaberaz alde banatan zituela eman zuela azken amasa 1766ko urtarrilaren 29an».

Jaiozta deituraz Manuel Garagorri zen, baina berak -auskalo zergatik- amaren abizena hobetsi zuen. Andoaindarra jaiozaz, Hernanin -amaren herrian- eman zituen bere lehenengo urteak. Haurra zelarik, aita hil zitzaion, eta amaren aldetik Miguel Miner jesuitak Jesusen Konpainiak Bilbon zuen etxera eraman zuen -Ricardo Gomez Ikerlariaren iritzian 1707an-. Urte horretan Konpainian sartzea lortu zuen. Gero hainbat urtez aritu zen Teologiako irakasle, Palentzian, Salamancan zein Valladoliden.

Ondoren, 1730 eta 1733. urteen artean, Carlos II.aren alarguna zen Maria de Neuburgo erregearen aitortle izan zen. Baina, garai horretan, Gortean salaketak izan ziren, eta Larramendi bera ere salatu zuten. On-



1967an omenezko eskultura ipini zuten Andoainen, oraindik han dagoena.

Protoabertzaleztat jo izan dute. «Pirinioez bi aldeetako Errepublikaz» mintzatu baitzen

torioz, eta bere burua zuritzeko asmoz, Sevillairainoko bidaia egin zuen.

1733an Loiolara joateko baimena lortu zuen, eta han bizi izan zen heriotza heldu zitzaion arte. Jesuitak Espainiatik bidali baino urte bat lehenago hil zen Larramendi. Hil zenean, Valladoliden bizi zen Jesuiten probintzialak agindu zuen haren gela karez eta harriz ixteko, eta ez ate-

'Diccionario de Autoridades'-en euskarari egiten zitzaizkion txantxai aurre egin nahi omen zien

ratzeko bertatik inongo paperik. Zergatik? Jesuitak bazekiten Larramendik pisu politiko nabarmena zeukela, eta haren lan argitaragabeak kontrolpean gorde nahi zituzten.

Salamancan Teologia maisua zen bitartean eman zituen inprentara Larramendik bere hasierako lan biak. 'De la antigüedad y universalidad del Bascuense en España' (Salamanca,

1728), euskararen apologia garbia da. Ilustrazioaren bultzadaren ondoren Europako hizkuntza nagusiek loral-dia bizi izan zuten eta bakoitzak bere Akademia sortu zuten. Fenomeno horren aurrean, Larramendi euskara beste hizkuntzen parean jartzen saiatu zen lan honen bidez.

Hurrengo urtean, 1729an, 'El imposible vencido, Arte de la Lengua Bascongada' eman zuen argitara, euskarari buruz argitaratu zen lehen gramatika, XIX. mende osoan itzal handia eduki zuena. Blanca Urgell irakaslearen ustez, Larramendiren lanaren abiapuntua Espainiako Akademiaren 'Diccionario de Autoridades' lanaren argitalpena eta bertan

euskarari egiten zaizkion txantxak dira.

Hala ere, Larramendiren lan eza-gunena 'Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuense y Latin' (Donostia, 1745) dugu. Hitz berri asko asmatu zuen, eta banaka batzuek gaur arte iraun dute, adibidez 'esku-titz'. Beste irtenbiderik ere ez zuen, Larramendik, gaztelaniako kontzeptu askok ez baitzuen ordainik euskaraz. Hala ere, hitzaurrean adie-



Emilio Truchueloren margolana.

Azkeneko erretratua, Xabier Garagorri modelo hartuta

FI.

DONOSTIA. Ez dago Larramendiren grabaturik. Haren itxura fisikoa, dakigun gauza bakarra da gizon handia zela. XIX. mendean hasi ziren haren erretratuak margotzen, era askotakoak, eta 1967an eskultura figuratiboa ipini zen Andoain-go elizaren ondoan.

Badu zerikusirik Larramendik eliza horrekin. Garai batean parroki eliza Buruntza mendiaren magalean zegoen, eta Larramendi gogotik borrokatu zuen oraingo tokira aldatzeko. Gainera, bera izan zen erakuntza-lanen zuzendaria. Dirua, Perun bizi zen Agustín Leitzak (1694-1763) ipini zuen. Andoainen jaioa

zen hura ere, eta merkatartizari esker ederki aberastutakoa.

Orain dela urte batzuk, Andoain eta inguruko herrietako euskaltzale batzuek Manuel Larramendi Kultur Bazkuna sortu zutenean, Xabier Laka eskultoreari eskatu zioten logotipoa eta honek aurpegi sudur-luze bat margotu, lauki baten barruan. «Laukia euskal kultura eta munduaren edo bizitzaren euskal ikuspegia adierazten du; aurpegia, berri, euskalduna da, bere munduan bizi nahi izateaz gain sudurraz bere mundutik kanpo kuku egin beharrean

eta nahian bizi dena», adierazi zuen Bazkunak.

Gero Bazkunak margolan figuratiboa bat eskatu zion Emilio Truchuelori, zeinak, modelo moduan, Xabier Garagorri unibertsitate irakasle eta Ikastolen Elkarteak aholkularia erabili baitzuen. Izan ere, Tellechea Idigoras historialariak askotan esaten omen zion Garagorritar honi, jakinik Manuelen leinu berekoa izan zitekeela -abizen berbera, jaioleki berbera...-: «Ni, hasten naizenean Manuel Larramendi irudikatu nahian, beti zutaz gogoratzen naiz».

Viernes 29.01.16
EL DIARIO VASCO

LITERATURA | CULTURA | 57

razi zuen hiru hitz bakarrik zirela berak asmatuak: 'sutumpu' (artilero kanoia), 'godaria' (txokolatea) eta 'surrautsa' (tabako-hautsa). Ez zen egia, noski.

Hitzegi hark neologismo asko bazekarren ere, eragin handikoa gertatu zen 1750-1900 epean. Ibon Sarasolak adierazi duen bezala, «maila jakin batetik gora aritu behar zenean nahitaez jo behar zen haren hitzegira. Ez zegoen euskararen alorrean beste hautabiderik».

Ines Pagola irakasleak argi frogatu du Larramendiren lexiko berri horrek indar handia hartu zuela Lore Jokoetako olerkariaren artean. Alegia, 1853-1903 epean. Badu bere logika: literatura ez-erlijiosoak gorakada ezagutu zuen orduan, eta foruzale-tasuna asko zabaldu zen gizartearen.

Kontzientzia piztaile

Hizkuntza kontzientzia piztea izan zuen helburu Larramendik. Hona hemen Blanca Urgellen iritzia: «Saia- tu zen euskaldunak konbentzitzen euskarak bazuela etorkizuna, eta hori garai batean non euskaldunak segituan uzten zuen alde batera euskara, jakintsu, aberats edo boteretsu egiten zen bezain pronto».

Hizkuntza aparte, gizarte eta politika azaroez ere arduratu zen. Besteak beste, 1754an «Coreografía o descripción general de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa» idatzi zuen, non Gipuzkoako lurraldea, historia, industria, ohitura eta biztanleria di- tuen hizketagai; eta «Sobre los Fueros de Guipúzcoa». Aditu batzuek «prota- bertzaleztatz» jo dute, «Pirinioez bi aldeetako Errepublikaz» mintza- tu baitzen.

Manuel Larramendi Kultur Bazku- na honela mintzatu da azken lan honi buruz: «Ordura arte beste inork ez bezala, euskararekin egin zuen be- zalaxe, Larramendik euskal foruen bete-beteko defentsa sututsa hasi zuen, eta «Sobre los fueros de Guipúzcoa» obra gogoangarria utzi zuen idatzita, 1983. urtera arte euskaldun- ok ezin ezagutu izan genuena, hain zuzen ere bere heriotzaren unean bere langela zuden paper haien artean zegoelako. Eta paper haiek guz- tiek Madrilerako bidea egin baitzuten. Foruei buruzko hau Tellechea Idigoras historialariak aurkitu zuen, bere Autobiografía aurkitu zuen be- zalaxe, paper haien artean».

Manuel Larramendi Kultur Bazku- nak honela agurtu du: «Garagorri ba- berriko semea, ez zen huts-hutsik euskararen aitzindari bikaina eta bi- degilea izan; Larramendi gure burua maitatzen, gure lurraldeak aurrera egin zezan bidea zabalitzen ahalegin- du zen gizona izan zen, gure askata- suna beste ezeren gainetik maitat- zen erakutsi zigan gizona, Gipuzkoan bere aurretik eta ondoren beste inork egin ez duen mailan».

Kultur Bazkunak ondo gogoan du Larramendiren sermoi bateko hara- ko esaldi hura: «Ez nadin haserretu; haserrean sartu ezkerro gaiztoa naiz eta gogorra. Gogoratzen zait non jaioa naizen, eta pizten zaizkit Aiurri- errekek erantsi zizkidana suak eta ga- rraio».

'Aiurri' hitz hori ilun samarra da. Testuinguru horretan, erreka-izena dirudi, baina egia da 'izaera' ('carac- ter') ere esan nahi duela. Nolanahi ere, Andoain eta bailarako euskal al- dizkaria izen horrekintxe bataiatu zuten: 'Aiurri'.

'Urrezko biblioteka' bildumako 13. alea: Virginia Woolfen 'Farorantz'

Malaparteren 'Larrua' plazaratu da 'Literatura unibertsala' kolekzioan, II. Mundu Gerrakoan estatubatuarrek Napolin egindako gehiegikeriez

:: F.I.

DONOSTIA. 'Urrezko biblioteka' bildumako hamahirugarren alea plazaratu du Elkar etxeak: Virginia Woolfen 'Farorantz'. Idazle honen azken lanetako bat da eta bertan argi ageri dira eleberrigintza berri- tzaileen teknikak, batik bat 'kontzientziaren isuria' edo 'barne jaioa' esan ohi zaio- na.

Ramsay familiak Eskozia- ko opor-lekuan emandako egun pareak kontatzen ditu eleberririk. Bi egun dira, bai- na batetik bestera hamar ur- teko tartea dago. Woolfen lan berri- tzaileenetan ohi den bezala, ekintzari eta elkar- ritzetari baino garrantzi gehiago ematen die introspekzio psikologikoari eta pertsonaien bar- ne-munduen azterketari.

'Urrezko biblioteka' bilduman, orain dela hogeitaka urte euskal it- zultzaileen elkarteak (EIZIEK) eta Eusko Jaurritzak abian jarritako 'Literatura unibertsala' kolekzio- ko


zenbait ale eskaintzen dira. Bertsi- o berriak dira, eta lehenengo al- dian jardundako itzultzaile bera aritu ohi da bigarren honetan. Kasu hone- tan, Anton Garikano.

Itzultzaileak hau adierazi du: «Esan zidatenean nobela hau ber- piztu egingo zutela, pentsatu nuen berri- tu bat eman beharko niola du- la hogeitaka urte egin nuen itzulpen hari, eta gogora etorri zid- taidan Virginia Woolfek ere behin eta berri- tu bat eman zutela bere idazla- nak».

Garikanoren iritziz, «prosa poetikoak» darabil Woolfek, eta bat dator zenbait kritikari- en iritzia- rekin: idazle hark bere burua islatu zuela libu- ruko protagonistetako ba- tean, Lily delakoan. «Ez zuen bere burua islatu idazle baten gisa, baizik eta margolari bezala. Kontuan izan behar da Virginia Woolfen azhi- pa bat margolari zenak». Bildumako hamahiru- garren titulua da hau. Io- nescoren «Emakume abeslari burusola»-rekin eman zit- zaion hasiera eta harrezkero 'Hamlet', 'Robinson Crusoe', 'Ma- dame Bovary' eta 'Mikel Strogoff' eskaini dira, besteak beste.

Polemika garrantza

Bestalde, 'Literatura unibertsala'



Vazquez eta Garikano itzultzaileak, atzo Donostian. :: MICHELENA

kolekzio 167. alea plazaratu da, Curzio Malaparteren 'Larrua', Jose Ramon Vazquezek euskaratua. 1949an plazaratu zen lehen aldiz eta II. Mundu Gerra garaian solda- du amerikarrek Napoliz jabetze- an egin zituzten gauza lagarriak azaltzen ditu, besteak beste. Beste bilduma hau, berriz, Erein eta Ige- la etxeak ari dira aurrera ateratzen. Filma egin zen eleberririk hiru oina- rri hartuta, baina itzultzailearen us- tez txarra da: «Liburu honetatik fil- ma ateratzea ez da erraza, eta gai- nera zuzendariak pertsonaia bat as- matu zuen; filmeko emakume ho- rrek oso presentzia txikia dauka li- buruan».

Malapartek gerrari eskaini zizkion hiru liburuetatik bigarrena da 'La- rrua'. Polemika handia eta gaitzes-

pen garrantzak eragin zituen Italian, argitara eman zenean. Eliza katoli- koak liburu debekatuen indexean sartu zuen. Batzuen ustez, Mala- parte «xaboi burbula terroristen egilea» da; Kunderak, berriz, XX. mendeko obra onenen artean sar- tu zuen.

Malaparteren biografia ere ez zen nolanahikoa izan; II. Mundu Ger- ran, bukaera aldera, Florentzian eta Praton eskudari faxistak anto- lazeaz akusatuta zuten, baina 1947an izandako epaiketan, eta PCiko idazkari nagusi Togliattiren lagunt- zari esker, aske utzi zuten.

Vazquezek agertu duenez, «egun- kariko kronika eta eleberria, asma- tua eta ikusia, oroitu eta amestua, egia eta alegia nahasten dituen li- burua da».

Biharko Bertso Egunean hamar lagun ariko dira, eta baita Barrosoren 2zio rap taldea ere

:: DV

DONOSTIA. Bihar 18:00etan ekin- go diote Kursaalaren aurtengo Bertso Egune-ko ekitaldi nagusiari. Beti izate- na da nolabaiteko ardatz bat, eta ora- ingoa hau da: bertsolariak antolat- zailearen deia jasotzen duenetik ohol- tza gaia entzunda kantuan hasi bitartean hartu beharreko erabakiak. Hamar bertsolari izango dira kan- tuan, bi taldetan banatuak: Unai Iru- rriaga, Andoni Egaña, Oihana Igua- ran, Etxahun Lekue, Fredi Paia, Xa- bier Terreros, Jon Maia, Oihana Bar- tra, Julio Soto eta Agin Laburu. Gai- nera, Odei Barrosoren bertsolari- en 2zio rap taldea ere zuzenean ariko da.

Baina goizez ere izango da saio- rik. Kursaal pareko Picachilla gara- gartotegian saio musikatu- izango da Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi eta Miren Amu- rizarekin, eta izango da bertso jarri- rik ere.